



Andoingo Udala



Ur hoditeriaren hobekuntza lan batzuk tarteko, Zumea kaleko errepide eta espaloian hainbat eragozpen sortuko dira datozen egunetan

- **Lanak Zumeako kaleko 16.zenbakiaren parean izango dira eta oinezkoei eta ibilgailuei eragingo die.**
- **Lanak astelehenean, azaroaren 13an hasiko dira, eta hiru aste iraungo dute gutxi gora-behera**

Andoainen, 23-11-10.- Zumea kaleko 16. zenbakiaren parean hobekuntza batzuk egingo dira datozen asteetan; ur hoditeria berritu eta inguruaren saneamendua gauzatuko da.

Horrek hainbat eragozpen ekarriko ditu oinezko eta ibilgailuentzako: oinezkoentzat itxita egongo da aipatu zonaldea, pasabide alternatiboa egokituz. Ibilgailuentzat, berriz, paso alternatiboa egokituko da, *bypass* bidez. Hori dela eta, ahal den neurrian, eremu hori ekidin eta herriko beste errepideek ematen dituzten bestelako alternatibak hautatzea eskatzen zaie herritarrei.

Lanak datorren astelehenean, azaroaren 13an hasiko dira, eta hiru asteko iraupena izango dute, gutxi gora-behera. Egoerak sor ditzakeen eragozpenengatik barkamena eskatu nahi du Udalak aldez aurretik; lanak amaituta, egoera hoberako izatea espero du.